

# EEBBen eta Europaren arteko gerra komertziala pizteko zorian dago

Nazioarteko merkataritza liberalizatzeko negoziazioen porrotak eragin du

**E**statu Batuen eta Europaren arteko gerra komertziala pizteko zorian dago, bi blokeotako ordezkariak merkataritza eta arantzelei buruzko negoziazioetan porrot egin eta gero. EEBBek eta EK-k adierazi dute dagoeneko beste aldekoen esportazioak arantzelan bidez zigortuko dituztela.

## BRUSSELA


Estatu Batuek Europako Komunitatearekin duten mila milioi dolarreko (100.000 milioi pezeta edo 5.000 milioi libera) balioko kontzesio edo lehentasun komertziala erretiratzeko eskatu zuen atzo GATT (Arantzel eta Merkataritza buruzko Akordio Orokorra) erakundean.

Erabaki hau hau aurrera eramanez gero, Europako Komunitatea ere prest agertu da produktu amerikarren kontrako antzeko neurriak hartzeko, hau da, Amerikatik datozen produktuen gaineko arantzelak ezartzeko.

Zigor neurri hauek iragartzeak bi blokeen arteko 'gerra komertziala' pizteko zorian dela esan nahi du. Gatazka honen arrazoia EEBBek eta Europak nazioarteko merkatal harremanak liberalizatzeko negoziazioetan izandako porrota da.

Europako zenbait nekazaritza produkturen merkaturaketaren inguruan izan den ezadostasunak ekarri du negoziazioen porrota, Europako hamabi lurraldeetako ordezkariak ez baitira prest azaldu Ameriketara egiten dituzten esportazioak gutxitzeko.

Zerealak eta, batez ere, neka-



Europako nekazal produkzioa eta esportazioak murriztea nahi du EEBBek.

ORZAIZE

zaritza produktu oliotsuen komertzioa da amerikarren eta europarren arteko akordioa eragozten duena. Europako lurraldeek produktu hauen esportazioa

laguntzeari utzi eta produkzioa gaur egungo 13 milioi tonatik sei urteren buruan zazpi milioira murriztea eskatzen dute amerikarrek, politika honek EEBBe-

tako produktuei kaltea dakarkiela argudiatuz.

Europarrek, berriz, produkzio eta esportazio murrizketak egiteari uko egin diote eta Europako Nekazaritza Politikaren ondorioz bertako nekazaritzaren produkzioa eta laguntzak asko murriztu direla azaldu dute. Europako lurraldeek urtean 55 milioi tona zereal (oliotsuak gehienak) inportatzen dituzte eta «produzitzen ere utzi behar digute».

Azkenean akordioa lortzeko ate guztiak itxita ez badaude ere, Amerika eta Europaren arteko gerra komertziala hasita dagoela dirudi eta merkataritza liberalizatzeko negoziazioak askoz zailagoak izango dira aurrerantzean. Honen eragin kaltegarriak munduko lurraldeetako ekonomiek nozitu dute.

## Amaierarik gabeko istorioa

**A**rantzel eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorreko (GATT) 'Uruguay Erronda' izenarekin ezagutzen dena 1986an hasi ziren negoziatzen munduko 108 lurraldetako ordezkariak, nazioarteko merkataritza erabat liberalizatzeko helburuz. EEBBek eta Europak nekazaritza produktuen inguruan hasieratik duten ezadostasunaren ondorioz, 1990ean sinatu behar zen behin-betiko akordioa atzeratu egin zen eta, oraingoa ikusita, luzerako izango dela dirudi.

Bi aldeetako ordezkariak, Edward Madigan Nekazaritza idazkari amerikarra eta Ray McSharry arlo bereko komisari europarra, EEBBeko hauteskundeetan ipini zuten negoziazio hauen muga, ordurako akordioa lortuta edukitzeko esperantzarekin. Azken saio honek porrot egin eta gero, hemendik aurrera zailagoa izango dela ikusten dute adituek, alde batetik Amerikako Administrazio berriarekin negoziazioak atzeragotik hasiko direla eta, bestetik, Bil Clinton lehendakari berriarekin politika babestaileagoa etor litekeelako.

## Langileak gutxitzeko planen aurkako grebaldia Tubacexen

### LAUDIO

Tubacex enpresako batzordeak datorren astearterako, hilak 10, greba deialdia egin du langileen artean, zuzendaritzak egin nahi duen langile kopuruaren murrizketa eta azken bi hilabeteetako soldatak ez kobratu izana salatzeke.

Tubacex-ek bi lantegi ditu, Laudion bata eta Amurrión beste. Guztira 922 langile biltzen ditu eta ordainketa-etendura egoeran dago pasa den ekainaz geroztik.

Enpresak 19.000 milioi pezetako (950 milioi libera) zorra dauka eta finantza egoera larria arrazoitzat hartuz 250 eta 340 lanpostu bitartean murrizteko proposamena egin die langileei.

Greba egunean batzarra eta manifestazioa egingo dituzte langileak Laudion. Era berean, gaur batzarrean bilduko dira soldatarik ez kobratzeaz gain enplegu erregulazio espedienteetan dauden 360 langileak.

Langileen ordezkariak Toño Aiz eta Pablo Isasi Audio eta Amurrioko alkateekin bildu ziren herenegun, enpresarentzako irtenbidea bilatzeko egiten ari diren ekimenen barruan.

Arizek agindu zuenez, enpresari laguntzea eskatuko die erakunde nagusiagoei udaletik. Isasik, berriz, Amurrioko Udalean laguntza sinbolikoak eztabaidatzeko konpromezua hartu zuen. Gainera, Amurrioko alkateak Aiara eskualdean neurri koordinatuen beharra azpimarratu zuen.

## Metaleko hitzarmenaren aldeko manifestazioa gaur Durangon

### BILBO

Bizkaiko metal sektoreko langileak konbenioa sinatzea eskatzeko eskualdean egiten ari diren mobilizazioen barruan, manifestazioa izango da gaur arratsaldeko 6.30etan Durangon. Bertan bilduko dira Durangaldea eta Gernikaldeko sektoreko langileak, ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek deituta.

Datorren asteartean Ezkerraldean eta hilaren 12an Bilbon izango dira mobilizazioak. Hilaren 19an bi orduko lanuztea deituta dago Bizkaian, eta 27an, berriz, egun osoko greba.

Sindikatuek salatzen dutenez, metal enpresetako arduradunen ordezkariak ez dira orain arte prest agertu hitzarmenerako

plataforma negoziatzeko. Sindikatuek, urtea bukatzeaz dagoela kontutan hartuta, 1992-1993 urteetarako hitzarmena proposatu dute. Bertan KPI gehi 1,5 puntuko soldata igoera eskatzen dute urte bakoitzeko. Era berean, sindikatuen plataformak datozen bi urteetan 25 lanordu murriztea jasotzen du.

Aurreko egunetan beste eskualdeetan egin bezala, gaur goizeko 8.30etan kotxe karabanak Bizkaiko Metal Enpresen Federakundeko (FVEM) zuzendaritzan ordezkariak dituzten Durangaldeko enpresak bisitatuko ditu.

Enpresari hauei «beren jarrera mugigaitza aldatu eta negoziatzea» eskatzen zaien idatzia emango diete langileek.

## LABURREAN

### TARABUSIK 1.100 milioiko plana jarriko du abian

Automozio osagarrien sektoreko Tarabusi enpresa bizkaitarrak 1.100 milioi pezetako (55 milioi libera) inbertsioak egingo ditu bideragarritasun plangintza martxan jartzean. Enpresa honetako langileek planari buruz egindako bozketan botoen % 77 estrategi plangintzaren aldekoa izan direla adierazi dute Tarabusiko iturriek. Hiru hilabete iraun dute enpresa eta langileen arteko negoziazioek.

### INASMETEK UTC konpainiarekin akordioa sinatu du

Inasmet materialen teknologi zentro gipuzkoarrak Estatu Batuetako United Technologies Corporation konpainiarekin sinatu duen akordioaren bidez, teknologi arloko laguntza emango die multinazionalaren enpresei. Korporazioak mundu guztian 186.000 langile biltzen ditu, 38.000 European. Gipuzkoako zentroak multinazionalak European dituen enpresek inbertsio egingo du lan.

### OSALAN aurten eratuko dela uste du Luesmak

Eusko Jaurilaritzako Lansailburua den Paulino Luesmak atzo adierazi zuenez, Gobernuak urtea amaitu baino lehen onartuko du Segurantzaren eta Lan Osasun Institutuaren (Osalan) lege proiektua. Luesma Josu Frade UGTko idazkari nagusiarekin bildu zen atzo egungo egoera aztertzeke eta ELA eta CCOO sindikatuak ordezkariarekin bilduko dela iragarri zuen.

### EHUKO irakasleak Zamudioko teknologi zentroan

Zamudioko Teknologi Zentroak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Bizkaiko Diputazioak atzo sinatu zuten akordioaren bitartez, EHUKO zenbait irakasle beren jakintza praktikan jarri ahal izango dute Zamudioko Teknologi Zentroan. Bertako lehendakaria den Aranzabek «irakaskuntza eta enpresaren munduak bateratu beharra» azpimarratu zuen.